



Bloke geometrikoekin jolasean.

Bloke geometrikoak

Askotariko jolasen bidetik iritsi gara, azkenean, irekitasunean hurrengo urratsa diren bloke geometrikoetara. Sei pieza motak eratzen dute material hori. Plastikozkoak zein egurrezkoak erosi daitezke, eta 200 pieza inguruko kutxatan etortzen dira.

Lehen begiratu batean ez dirudite gauza handia, ezta? Eta, hala ere, umeen esku utzita librean –bestelako gidaritzarik gabe– berehala ikusiko ditugu sormenaren makina martxan jartzen. Eta umeak behatzen jarri gero ikusiko dugu badaudela forma geometriko simetrikoak modu oso ordenatuan eratzen dituztenak. Beste batzuk, berriz, hasiko dira esanguratsuak egiten zaizkien irudiak eratzen. Eta egongo dira forma benetan bitxiak egitea aterako zaizkien umeak.

Txikienekin hortxe bertan hasi daiteke elkarrizketa matematikoa. Egin duten hori aztertze eta ezaugarriak hitzetara ekartzetik. Geroago, lan gidatuari ekiten diogunean mundu oso bat zabalduko da gure aurrean. Bloke geometrikoekin matematikaren atal guztiak jorratu ahal izango ditugu, eta LH guztian zehar: zenbakikuntza, eragiketak, logika eta egoeren ebazpena, desafioak, jolas arautuak, ikerketa lanak, behaketa eta

**SEI PIEZA MOTAK
OSATZEN DUTE
MATERIALA, ETA 200
PIEZA INGURUKO
KUTXETAN DATOZ**



IQ puzzlea.



Soma kuboak.



Tangrama.

ondorioztatze prozesuak, eta nola ez, geometria... Horiek denak aktibatuta ahal izango ditugu. Analisisirako zein ondorioak ateratzeko sena eta behatutakoak hitzetan jartzeko gaitasuna piztea lortzen badugu, lan matematiko bikaina egiten ariko gara.

Nahi duzue blokeekin zatikiak nola aztertu daitezkeen jakin? Eta blokeekin gurutzegrama jolasak egitea? Konposaketa eta deskonposaketa lanak egitea? Umeei ez ezik, ingurukoei erronka geometrikoak proposatzea nahi duzue? Jolas arautu erraz baina dibertigarria planteatzea?

Bada, *Matematiketan.eus*-en aurkituko dituzu horien guztien erantzunak. Materialak berak potentziala badu. Ea potentzial hori aprobetxatzen asmatzen dugun! ■■■